

## **GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL KONTSEILUA 2019ko UZTAILAREN 9ko OHIKO BILKURAREN AKTA**

Bertaratu direnak:

Juan Antonio Fernández jauna, Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzako idazkari nagusia eta Kontseiluko presidentea, lehendakariak eskuordetuta.

Sofía Marroquín andrea, Euskadiko GGKEen Koordinakundeko presidentea eta Kontseiluko presidenteordea.

Paul Ortega jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria.

José Ignacio Bañuelos jauna, Hezkuntza Sailaren ordezkari gisa.

Fátima Ansotegi andrea, Osasun Sailaren ordezkari gisa.

Zuriñe Elordi andrea, Emakunderen ordezkari gisa.

Agurtzane Llano andrea, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila ordezkatzuz, hitzarekin baina botorik gabe.

Josu Basozabal jauna, Bizkaiko Foru Aldundia ordezkatzuz.

Juan Manuel Balerdi jauna, Euskal Fondoa ordezkatzuz.

Mila Domínguez andrea, Josu Urrutia jauna, María Viadero andrea, Eneko Gerrikabeitia jauna, Iñaki Orube jauna, María del Mar Magallón andrea eta Natalia Rodríguez andrea, Euskadiko GGKEen Koordinakundearen ordezkari gisa.

Elsa Fuente andrea, Patricia Bárcena andrea eta Igone Revilla andrea, garapenerako lankidetzaren alorreko beste euskal eragile sozial batzuen ordezkari gisa.

Noemí de la Fuente andrea, Kontseiluko idazkaria, hitzarekin baina botorik gabe.

Kontseiluko presidenteak gonbidatuta bertaratu dira, hitzarekin baina botorik gabe, Ainara Arrieta andrea –koordinazio teknikoaren arduraduna–, Blanca Pérez andrea –zerbitzuetako arduraduna–, eta Ana Rojo andrea –aholkularitza juridikoko arduraduna–, guztiak ere Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako kideak; Laia Vinyes, PLATFORMAkoa; eta Josu Oscoz, Arabako Foru Aldundiko lankidetzeta-teknikaria.

Ezin etorria adierazi dute:

Jordi Campás jaunak, Ogasun eta Ekonomia Sailaren ordezkari gisa.

Bittor Oroz jaunak, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren ordezkari gisa.

Elena Moreno andreak, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren ordezkari gisa.

Mikel Antón jaunak, Lehendakaritzaren ordezkari gisa.

Ana Oregi andreak, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideetako eta Berdintasuneko Batzordearen ordezkari gisa.

Nekane Zeberio andreak, Arabako Foru Aldundiaren ordezkari gisa.

Fernando San Martín jaunak, Gipuzkoako Foru Aldundia ordezkatzuz.

Maite Etxebarria andreak, EUDEL ordezkatzuz.

Iñigo Eguren jaunak eta Santiago Martinez jaunak, Euskadiko GGKEen Koordinakundearen ordezkari gisa.

Joseba Andoni Sainz de Murieta jaunak, Carlos Askunze jaunak eta Gorka Urrutia jaunak, garapenerako lankidetzaren Euskadiko bestelako gizarte-agenteen ordezkari gisa.

Lekua: Lehendakaritza

Data eta ordua: 2019ko uztailaren 9a, 11:00

Jonan Fernándezek bertaratuei ongietorria egin die, eta bilkurari hasiera eman dio, 11:13an. Adierazi du izendapen berriak egin direla, baina EHAAn argitaratzeko zain daudela. Horregatik hainbat kidek bilkuran hitzarekin baina botorik gabe parte hartuko dute. Gaineratu du Batzorde Iraunkorra ekainaren 6an bildu zela urteko plangintza egiteko eta bilkura honen gai-zerrenda finkatzeko. Azkenik adierazi du Euskadin bisitan dagoela Laia Vinyes, proiektu-teknikaria PLATFORMA erakundearen (garapenerako lankidetzaren eremuan aktiboak diren toki- eta eskualde-gobernuen koalizioa da, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak eta Euskal Fondoak bertan parte hartzen dute Euskadi Basque Country hautagai-zerrenda bateratuan), euskal lankidetzaren sistema ezagutzeko asmoz; Kontseiluak PLATFORMAREN lana ezagutzeko izan dezakeen interesa dela medio, proposatu du gai-zerrenda aldatzea PLATFORMAREN lanari buruzko aurkezpen labur bat egin eta solasaldi bat izateko, eta proposatu du Laia entzule gisa egotea bilkura osoan, Kontseiluak nola funtzionatzen duen ikus dezan. Puntua gai-zerrendan sartzea erabaki da aho batez.

Bertaratuen banan banako aurkezpena egin da jarraian. Eta honako gai-zerrenda honi jarraikiz egin dugu aurrera:

- PLATFORMAri buruzko aurkezpena eta solasaldia
- Aurreko bilkuraren akta onartzea
- Osoko bilkuretarako 2019ko lan-plana onartzea
- GLEAREN 2019rako urteko plana, aurrekontuak eta deialdiak aurkeztea
- IV. Gida Plana: AUZO(LAN)KIDEEEN eta garapenerako politiken koherentziaren egungo egoerari buruzko informazioa
- Garapenerako politiken koherentziaren lan-taldea: egindako urratsei buruzko informazioa
- Hainbat gai, galde-eskeak

## **1. PLATFORMAri BURUZKO AURKEZPENA ETA SOLASALDIA**

Jonan Fernándezek ongietorria egin dio Laia Vinyesi, eta hainbat aurkezpen egin ondoren, hitza eman dio PLATFORMAREN lana aurkez dezan<sup>1</sup>. Azalpena amaitu ondoren, eta galderarik ez dagoenez, aurreikusitako gai-zerrendarekin jarraitu da.

## **2. AURREKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA.**

Bertaratuek inolako oharrik egin ez dutenez, akta aho batez onartu da.



Akta GLEK  
2018.12.17.pdf

---

<sup>1</sup> PLATFORMAri buruzko informazio guztia eskura dago honako helbide honetan: <http://platforma-dev.eu/es/>

### 3. OSOKO BILKURETARAKO 2019KO LAN-PLANA ONARTZEA

Jonan Fernándezek sarrera bat egin ondoren, Noemí de la Fuentek Batzorde Iraunkorrek proposatutako lan-plana aurkeztu du.



Calendario sesiones  
CVCD 2019.pdf

Mila Domínguezek azpimarratu du Batzorde Iraunkorrean era berean onartu zela hemendik aurrera berrituko dela lehen hiru hilabeteetan Batzorde Iraunkorraren bilera bat egingo dela gutxienez.

Bozketa egiteko unea iritsi da, eta aho batez onartu da.

### 4. GLEAREN 2019rako URTEKO PLANA, AURREKONTUAK ETA DEIALDIAK AURKEZTEA

Paul Ortegak eta Ainara Arrietak 2019. urterako urteko plana, deialdien egutegi eguneratua eta bana daitezkeen funtsak aurkeztu dituzte.



2019ko URTEKO  
PLANA.pdf



Actualizado-  
Calendario convocac



Presupuesto-FFDD.p  
df

Ainara Arrietak ekitaldiari dagozkion bigarren eta hirugarren ordainketak exekutatzeko egiten ari diren baterako ahalegina baloratu du (bestela, exekutatu gabeko konpromisoak berriz sartu behar dira aurrekontuan hurrengo ekitaldian). Baina diru-sarrerari buruz ohartarazi du. 2019an, lehen sei hilabeteetan, GLEAk 200.000 euroko diru-sarrerak jaso ditu. Diru hori Ogasunari itzultzen zaio. Kopuru horretatik aurrera, eta 20-40-40 ordainketa-sistemaren ondorioz, proiektuen deialdia milioi bat euroko zenbatekoan handitu ahal izan zitekeen. Horregatik da garrantzitsua modu errealistan formulatzea.

Sofía Marroquínek bere harridura azaldu du diru-sarreraren zifrarengatik, 2018ko memoriaren exekuzio-mailarekin alderatuta, % 99,7 izan baitzen. Ainara Arrietak argitu du aurreko urteetako diru-sarrerak direla.

Sofía Marroquínek gaineratu du norgehiagoka-sistemak berak deialdia oso exijente bihurtzen duela inpaktu-mailari, adierazleei eta abarri dagokienez, eta exijentzia horren eta exekuzio-epearen arteko oreka zalantzan jartzen du.

María del Mar Magallónek galdetu du zer gertatzen den exekuzio-estimazioa ez denean betetzen. Ainara Arrietak argitu du azken hiru urteetan ia % 100ean exekutatu dela, ezarritako jarraipen-sistemari esker aurrekontua egiterakoan aurreikuspenen arabera ekitaldian egingo ez diren ordainketak berriz programatzen direlako.

Iñaki Orubek adierazi du ordainketak banatzeko modua (20-40-40) berrikusi egin behar dela, bere ustez exekuzioari kalte egiten diolako. Gainera azalpena hain argi eman izana eskertu du. Eta azpimarratu du benetan kezka garria dena aurrekontua nahikoa ez izatea dela. Deialdiaren funtsen murrizketa emaitza matematiko bat da, baina aurrekontutik eratorritzen dena. Azken bi urteetan GLEAren aurrekontua milioi bat igo da, eta hori ez da guztizko aurrekontuaren gehikuntzarekiko proportzionala izan. 2020ko aurrekontuari begira beharrezkoa da euskal lankidetzaren balioa azpimarratzea eta aurreko ibilbidea berreskuratu ahal izatea.

Sofía Marroquínek azpimarratu du 2019ko Proiektuen deialdirako aurkeztutako proposamenen kopuruari buruzko datua (200 proposamen baino gehiago) berri ona dela ekimenak abian jartzeko borondatea dagoen neurrian, baina alde negatiboa duela onarpen-portzentajeari dagokionez, lehiakortasunarengatik eta dakarren lan-zamarengatik. Eta adierazi du zein ona izango litzatekeen lasaitasun handiagoz, segurtasunez eta nahikoa aurrekontuarekin egitea.

Paul Ortegak gogorarazi du luzatutako aurrekontuekin ari garela lanean 2019an. Eta IV. Gida Planean 2020rako aurreikusitako gehikuntza aurrekontuak onartzen badira bakarrik izango dela eraginkorra.

## **5. IV. GIDA PLANA: AUZO(LAN)KIDEEEN ETA GARAPENERAKO POLITIKEN KOHERENTZIAREN (GPK) EGUNGO EGOERARI BURUZKO INFORMAZIOA**

Paul Ortegak, Batzorde Iraunkorreko kideen eskaerari erantzunez, garapenerako politiken koherentziaren eta AUZO(LAN)KIDEEEN aldeko apustuan egindako aurrerapenaren aurkezpena egin du.



Presentación CPD +  
Auzolanldeak\_CVCD

Sofía Marroquínek aurkezpena eskertu du. Euskal lankidetzaren 30 urtetik gorako ibilbidea eta bere bilakaera gogorarazi ditu. Eta adierazi du kezkatuta dagoela ibilbide hori ez duten beste eragile batzuk konpartitzen diren printzipioei uko egin gabe inkorporatzeari dagokionez.

## **6. GPKko LAN-TALDEA: EGINDAKO URRATSEI BURUZKO INFORMAZIOA**

Jonan Fernándezek egin diren urratsei buruzko sarrera egin du eta Noemí de la Fuenteri hitza eman dio; Noemí de la Fuentek uztailaren 3an egin zen garapenerako politiken koherentziaren lan-taldearen lehen bilkuran hartutako erabaki nagusiak aurkeztu ditu.



Acta grupo trabajo  
CPD 03072019-eus.p

Iñaki Orubek ere gizarte-gaiei lotutako pertsonaren baten parte-hartzea faltan botatzen duela adierazi du. Noemí de la Fuentek argitu du Gazteria Zuzendaritzako teknikari bat ari dela parte hartzen Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren ordezkari gisa.

Lan-taldearen eraketa eta helburuak aho batez onartu dira, eta GLEAri enkargatu zaio funtzionamendu-erregelamenduaren zirriborro bat egin dezala.

Balioetan oinarritutako hezkuntzaren inguruko lehen txostena martxan jartzea onartu da aho batez.

Aho batez onartu da lan-azpitalde bat sortzea hezkuntzako txostena sustatzeko eta beste lan-azpitalde bat sortzea etorkizuneko txostenetarako proposamenen zehaztapenean aurrerantz egiteko.

Funtzionamendu-erregelamendua onartzen den bitartean, GLEAk proposatu du hezkuntzako lan-azpitaldea ardura dadila erreferentziazko terminoak lantzeaz eta azterlanaren lantze-prozesuan laguntzeaz; txostenaren zirriborroa garapenerako politiken koherentziaren lan-taldean aztertu dadila; eta behin betiko dokumentua Kontseiluaren osoko bilkuran aurkeztu dadila. Sofía Marroquínek txostenak Kontseiluaren baitan sozializatzeko duen eragin pedagogikoa baloratu du. María del Mar Magallón ez dator bat osoko bilkuran dokumentua itxita aurkeztearekin eta ekarpenak egiteko aukerarik ez izatearekin. Sofía Marroquínek erantzun dio Kontseiluaren funtzioa izango dela azterlanaren gomendioak abiapuntutzat hartuz aurrerantz egiteko moduari buruzko ekarpenak egitea. Horren ondoren, GLEAk planteatutako proposamena onartu da.

## **7. BESTE BATZUK; GALDE-ESKEAK**

Aztertzeko beste gairik ez zegoenez, 12:43an osoko bilkura amaitutzat jo da.

**NOEMÍ DE LA FUENTE PEREDA**

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN  
EUSKAL KONTSEILUKO IDAZKARIA**

**JUAN ANTONIO FERNÁNDEZ  
ERDOCIA**

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN  
EUSKAL KONTSEILUKO  
PRESIDENTEA**